



Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea



Irakasleon erantzunkidetasun eta konpromiso soziala: subertsioa ardatz

Amaia Alberdi Ruiz de Alegria
aalberdir@mondragon.edu

-Pedagogia konprometituak, transgresioa
gorpuzteko manierak, UEU-
2024/07/05, Eibar



Nondik norakoak labor-labor

1. Adiera eta adierazleak
2. Erantzunkidetasun eta konpromiso sozialaren gaineko zenbait proposamen
3. Lokatzetan gaude.

Taldean hausnartzen gabiltzan zenbait galderen gainean eraikita dago gaurko proposamena. Zorionez, hamaika bidelagunen hausnarketek hauspotzen dute ibilbidea. Zuen guztionak izugarri ongietorriak izango dira. **Jakintza eta erantzun kolektiboak eraikitze beharra dugu, GORA KONTRABANDOA ;)**



Zein da eskolaren eta hezkuntzaren funtzioa? Hezkuntza zerbitzu publiko bat al da? Hala izan beharko al luke? Zein orain eta etorkizunetarako hezten dugu/gara? Zer gorpuzten dugu? Noren mesedetan? Nork erabakitzen du?

Galdera hauen erantzunen arabera
konprometitzen gara.

Komuna komunean eta komunarentzat (Salbotx, 2021) eraiki nahi badugu justizia soziala ardatz izanda, galdera konplexuei ahal bezainbeste ertzetatik eutsi beharko genieke. *Teaching community: a pedagogy of hope (hooks, 2004)*



ai, ai, ai, ai, ai, ai mila galdera...

Erantzuna non ote da? Ba al dago?
Akaso, ez. Oraindik ;) (Puiggrós,
1994)

1. Adiera eta adierazleak

1. Erantzukizun/Erantzunkidetasun/konpromiso, adierazleen erabileraren gorakada, askotariko adierak. Narratibek/hizkuntzek/lexikoek subjektibotasunean eragiten dute, ekintza soziala dira eta mundu ikuskerak eraikitzen dituzte. Izateko, izenaz gain, horren adiera partekatu argiak izatea garrantzitsua da (erresistentzia lexikoak, problematizazioa (kantatu, maitatu eta dantza/zalantza)
2. Transgresioa/eraldaketa adierazleen bahiketa. Eraldaketak ez du zertan subertsiboa izan behar.
3. Hainbat ikerketeten ondorioek erakutsi dute irakaslegaiengan intsumisoak diren ekintza/pentsamenduak urriak direla. Etorkizun posible desiragarriak amesteko, mundua berriz liluratzeko (Federici, 2019), gaitasunaren galera, genealogia beharra (eta politizazio prozesu kolektiboena ere).

Erantzukizuna dugula sentitzen dugun horrekiko konprometitzen gara, ez badugu uste erantzuleak izan gaitezkeela, nekez konprometituko gara. Erantzukizun, erantzuteko gaitasun (Haraway, 2016) moduan ulertu. Erantzunkidetasun, erantzuteko gaitasun kolektiboa. Erantzuteko gaitasun kolektiboa dugula uste/sineste dugunarekiko konprometituko gara. **Zerri erantzuteko gai ikusten gara? Zertarako? Zergatik?**

**Mundua pertsona bakarrak aldatu dezakeelaren falazia...*

2. Erantzunkidetasun eta konpromiso sozialaren gaineko zenbait proposamen

- **Understanding of “social responsibility and commitment” of the teaching profession: a systematic review (Alberdi-Ruiz de Alegria, Imaz-Agirre eta Gezuraga-Amundarain, 2024)**
- Ardura edo erantzunkizun soziala jartzen dugu jomugan, ingelesezko “social responsibility” eta “commitment”. Responsibility as “the ability to respond” (Haraway, 2016), euskaraz “erantzuteko gaitasuna” eta “konpromiso soziala”.
 - Gakoak dira zerri, nola eta norekin erantzun.
 - OCDE(PISA)/Hezkuntza politika neoliberalen eta merkantilizazioaren gorakada 90. hamarkadatik aurrera. Norbanakoaren erantzukizunarekin, bikaintasunarekin, eraginkortasunarekin... lotutako ulermenak ikusi ditugu, baita justizia sozialarekiko eta aktibismoarekiko konpromiso kolektiboarekin lotutakoak ere, beraz, **adiera disputan dago**.
 - 3 galdera sortu ziren talka hau (disputa) argitzeko. Nola ulertzen eta lotzen da erantzukizun/erantzunkidetasun eta konpromiso soziala...
 - irakasle lanbidearekin?
 - irakasleen prestakuntza-programetan?
 - testuinguru soziopolitikoaren kontzientziarekin, irakasleen lankidetzarekin eta militantziarekin/aktibismoarekin?

EDUKI ETA JAKINTZA PEDAGOGIKOAREN EZAGUTZA FALTA

1. Irakasle formakuntzan oso gutxitan eusten den kontua da justizia sozialaren aldeko erantzukizun eta konpromiso sozialarena (batez ere irakasgai tronkaletan). Ikerketetan ikusi dugunaren arabera, adiera zabaldiena hau da (gurean ere):
 - “ikasle norbanakoen eskubideekiko/ongizatearekiko erantzukizuna egokitzapen idibidualen bitartez”; **zapalkuntza egiturak edota ekintza kolektiboen beharra, orokorrean, ez da zalantzan jartzen/problematizatzen**
2. Ikerketa batzuek azaleratu dute irakasle formakuntzan curriculum eta metodologia aldaketak behar direla (jarreretik koherentea den praktika pedagogikoa gauzatzeko), hauexek dira **proposatutako zenbait estrategia pedagogiko**:
 - **Curriculumaren dekolonizazioa, irakasle-ikerlari begirada (transformative/organic intellectual), dialogoan eta eztabaidan oinarritutako metodologia Freireanoak... eta pentsamendu kritikoaren** (hooks, 2010) **garapenarekin lotzen dute**. Horretarako, irakaslearen posizionamendua, justizia sozialari lotutako jakintzak/genealogia eta jakintza teorikoa eta praktikoaren uztarketa (praxia) praktikaldietan.

UNIBERTSITATEEN HAUTU PEDAGOGIKO ETA METODOLOGIKOEN ERAGIN ZUZENA, hau hooks-ek (2023) ere salatzen du.

AGENTZIA, LORATZE ESPAZIOAK

1. Justizia sozialaren aldeko konpromisoa hartzen duten irakasleek, erresistentzian eraikitzen dute beraien posizionamendua, eta lanbidea besteekiko eta besteekin justiziaren defentsan eta ahalduz erakitzen dute. Kontziente dira **injustizien itsutasunak** ekidin behar direla.
2. **Asko militanteak/aktibistak dira** → Horretaz gain, zapalkuntzak bizi izan dituztenen (eta hauen kontzientzia gehiago dutenen) artean gehiago gertatzen da. Gainera, zapalkuntzen intersekzioak loratze espazioak dira, injustiziak sistemikoki eta gurutzatuta ulertzen/bizitzen dituztelako. **BORROKA(N)TIK JAIOTAKO JAKINTZA DAUKATE** (Menenses, 2019), genealogiaren jabetza eta zirrikituetan ernaltzen dira “know and work the cracks”, eta jakintza hauek elkarbanatzen dituzte (kontrabandoan).
3. Horregatik, **justizia sozialera bideratutako konpromisoa duten irakasleak “elkarrekin” ehuntzen dira.**
4. **Subalternitateen arteko lehia beharrea aliantzak (gurean ere)**

HEZKUNTZA KOMUNITATEA ETA HERRIGINTZA ARDATZ



IDENTITATE INDIBIDUALETIK EKINTZA KOLEKTIBORA, POSIZIONAMENDUA (SUBJEKTU POLITIKOAREN ERAIKUNTZA KOLEKTIBOA)

1. Hezkuntza-politikan eta irakasleen prestakuntza-programetan ikuspegi neoliberalak ezartzeak ondasun publikoa edo komunitarioa lausotu du, norberaren erantzukizunaren eta irakasleen lanbidearen indibidualizazioaren mesedetan.
honek irakasleen identitate, posizionamendu eta kolaborazioan eragin du
2. Erresistentzian dauden irakasleak "erreta" daude eta, batzuk, lanbidea uzten ari dira. Salatzen dituzten arrazoiak:
 - Administrazioaren gabeziak eta oztopoak
 - Harreman komunitarioak sortzeko zailtasuna, baita irakasleen artekoa ere.
 - Konprometitu dauden batzuek beste lanbide batzuk bilatzen dituzten beraien ekintzaren inpaktua handitzeko (unibertsitatea, elkarteak, partidu politikoak...)
3. Horri aurre egiteko, ikertzaile batzuek diote justizia soziala lortzeko prozesuak unibertsitateen, gizarte-mugimenduen, eskolen eta komunitatearen arteko lankidetzaren bidez gertatzen direla, eta konpromiso sozialetik "**esnatzeak**" "**jendea biltzen denean**" gertatzen direla, pertsonak **elkarrizketan** hasten direlako eta **etorkizun berri posibleak elkarrekin pentsatzen** hasten direlako.

EGOKITU BEHARREAN ERALDATU (SUBERTITU/TRANSGREDITU) BESTEEKIN, KOMUNEAN

Proposamena

Erantzukizuna erantzuteko gaitasun gisa ulertuta, garrantzitsutzat jotzen dugu non jarduten duen gaitasunak eta zer emaitza bilatzen duen, hau da, non, norekin eta nola kokatzen den irakaslea arazoarekin geratzea erabakitzen duenean (Haraway, 2016), konpromisoa hartzean.

Gure ustez, azterketa-kategoria bakoitzak ulermen, karakterizazio eta erantzuteko gaitasun desberdinak erakusten ditu, eta horrek irakasleen narratibari, identitateari, posizionaltasunari eta ekintzari forma ematen diela ikusi dugu, banaka zein taldean.

Badirudi justizia sozialera bideratutako irakaskuntza eraldatzaileak begirada makro/makro bat izan beharko lukeela, desberdinkeria eta injustizien aurre egiten dieten komunaren eraikuntza, komunean, komunarentzat (Salbotx, 2021)



3. Gure sustraiak ilunpean daudelako, elikatzen gaituen lurrean (Ursula K. Le Guin)

Kulpatik ardurara, kontraesanak besarkatu (erro(eta)tik), goazen **lokatzetan** egotera (Haraway, 2016; GGAK lantaldearen proposamena), gure bazterrak arakatzera (Emagin, 2022) eta elkarrekin eraikitza (gabiltzalako baikaude hain zikin).

Lokatzetan egotea, errealitatearen konplexutasuna ezagutu eta bertan kokatzea da. Lokatzetan gaudenean gu zikintzen gara, besteekin, aukera berriak eraikitzeko. Lokatzetan gaudenean badakigu arazoaren “zikinak” guri eragiteaz gain, guk geuk ere sortzen dugula.

ETA LOKATZETAN GAUDE, BERTAN ERNALTZEKO
KONPROMISOA HARTU NAHI AL DUGU? HORRI EUSTEKO
PASIORIK/ JAKIN-MINIK BA AL DAUKAGU?



Bibliografia

(testuan aipatuak, beste hamaika pertsonen hausnarketak ere biltzen diren arren)

- Alberdi-Ruiz de Alegria, Amaia; Imaz Agirre, Ainara eta Gezuraga, Amundarain, Monike (2024). The understanding of "social responsibility and commitment" of the teaching profession: a systematic review. *Globalisation, Societies and Education*. <https://doi.org/10.1080/14767724.2024.2335263>
- Emagin, Euskal Herriko Bilgune Feminista (2022). *Araka dizagun gure batzerrak*. Susa/Lisipe.
- Federici, Silvia (2019). *Mundua berriz liluratuz: feminismoa eta komunen politika*. Katakarak.
- GGAK lantaldea
- hooks, bell (2010). *Teaching Critical Thinking: practical wisdom*. Routledge.
- hooks, bell (2004). *Teaching Community: a pedagogy of hope*. Routledge.
- hooks, bell (2023). *Transgresioa Irakasgai: hezkuntza askatasunaren praktika gisa*. Katakarak.
- Haraway, Donna (2016). *Staying with the Trouble: Making Kin in the Chthulucene*. Duke University Press.
- K. Le Guin, Ursula (2021). *Oihan hitzean mundua*. Igela.
- Meneses, Maria Paula (2019). *Knowledge born in the struggle. Constructing the Epistemologies of the Global South*. Routledge.
- Puiggrós, Adriana (1994). *Imaginacion y Crisis En La Educacion Latinoamerica*. Patria.
- Salbotx Alegria, Nora (2021). *Askatu edo Moztu. Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak*. Txalaparta.

MUSIKA

- Alaitz eta Mainer (1999). *Mila galdera*, Inshala diska. Elkar.
- Anari (2021). *Kantatu, maitatu eta dantza*, Nacho Vegas-en "Vinu, cantares y amor" (Canciones populistas-2015) abestiaren bertasio eta moldaketa.